

# Nazio kontakizun berria

## Peru Iparragirre

**H**asier Arraizen *Maitasun keinu bat besterik ez* (Erein, 2019) saiakera bi zati nagusitan banatzen da. Lehen atalean idazle belaunaldi bat aurkezten digu Arraizek. Bigarrenean, ostera, hainbat gogoeta plazaratzen ditu, garaiazen egoera politikoz eta honen baitan kontakizunak duten garrantzi politikoz.

Erratuta egon naiteke, baina irudipena dut aspaldian ez dela belaunaldi berri bat modu ezagarritu batean finkatu. Tropelaren edo belaunaldi galdu deritzonaren ostean zetorren belaunaldiaz hitz egin izan da, baina belaunaldi horretako idazleak ez dira liburu batean horrela aurkeztu, uste dut. Belaunaldien auzia lausoa eta eztabaidatu beharrekoa da, eta proposamen hau izan daiteke horretarako abiapuntu bat. Belaunaldi zatitua da, ordea, irakurleari aurkezten

zaiona, narratibari behatu baitio gehienbat Arraizek egileen obra aztertzerakoan. Kirmen Uribe, Harkaitz Cano, Eider Rodriguez, Mikel Peruarena Ansa, Unai Elorriaga, Ixiar Rozas, Karnele Jaio, Ur Apalategi, Lander Garro, Uxue Alberdi eta Katixa Agirre hartzen ditu belaunaldi berriko



### 'Maitasun keinu bat besterik ez'

**Egilea:** Hasier Arraiz.  
**Argitaletxea:** Erein.

idazleen erakusgarri gisa, eta Uribe kokatzen guztien buru, nolabait; iparrorratz, bederen.

Aipatu idazleen ibilbideak gainbegiratu ostean, Uriberen obra xeheago aztertzeari ekiten dio Arraizek, saiakerako gaietako bat den post-postmodernitate zantzuak topatzen dizkiolarik ondarrorren azken eleberriari. Lehen zatian, normalizazioaren belaunaldi gisa definitu nahi duen honi buruz aritzean, hainbat alderdi gatazkatsu modu azalekoegian aipatzen dituela iruditzen zait, balizko normalizazio hori zalantzan jarri gabe, adibidez.

Bigarren atala, filosofia politikoa eta narratologiaren artean, beste bide batetik abiatzen da zeharo. Delako belaunaldi berriak orain arteko jarduna garatu duen garaian mendebaldeko egoera politikoa jasandako eraldaketa aztertzen du Arraizek, gaur egungo Euskal Herriraino helduz. «Ezkerreko anemia intelektualaren» aurrean proposamen argiek dator Arraiz, betiereko diruditen eztabaidetara arnasa berria ekartzera, «kontakizunaren lehia» delakoaren inguruan, batez ere.

Liburu mardula da, eritz askotara helden dena, nahiz eta ba-

tzuetan, agian, azalekoegi. Eztabaidarako eta gogoetarako abiapuntu interesgarria izan daiteke, mahaigaineratzen dituen gaietako asko, presente eduki arren, patxadaz plazaratzeko ohitura handirik ez baitago. Hala eta guztiz ere, saiakera, oro har, gorabeheratsua iruditzen zait; lantzen dituen gaien ugaritasunaren eta askotarikotasunaren ondorioz, ziurrenik. Era berean, bi atalen arteko loturak ere ez dira oso garbiak: gurari batek baino gutxi gehiagok elkartzen ditu askotan. Amaiera aldera itzultzen da belaunaldi berriko idazleengana, misio edo proposamen batekin: nazio kontakizun berriaren erakuntzaren parte izan daitezela. Egitekoa jartzen die: euskal eleberri on pila bat. Zaila horren aurka lerratzea.

*Maitasun keinu bat besterik ez* saiakeraren alderdirik interesgarriena, zalantzarik gabe, liburua eta bertako gogoetak biribiltzen dituena, Arraizen zintotasuna da, erakusten duen zintotasun intelektuala eta emozionala, eta ikuspegi propioa plazaratzeko ausardia, soka luzea ekarriko duena, espero dezagun, bai ikuspegi literariotik, eta baita politikotik ere, bata eta bestea banatzerik balego.



### 'Behinola' aldizkaria.

**Argitaratzailea:** Galtzagorri elkarte.  
**Zenbakia:** 39. zenbakia.

**E**guno antzerkiaren nondik norakoak aztertu dituzte *Behinola* haur eta gazte literaturako aldizkariaren azken zenbakian. Besteak beste, Jokin Oregi (Marie de Jongh), Pilar Lopez (Teatro Paraiso), Paxkal Indo (Kiribatil) eta Amancay Gaztañagaren (Kamikaz kolektiboa) iritziak jaso dituzte.



### 'Iridium'

**Egilea:** Francisco Castro. **Itzultzailea:** Mitxel Murua. **Argitaletxea:** Albedania.

**G**azteentzako eleberria da *Iridium*, jatorriz Francisco Castrok galegoz idatzia. 18 urteko neska bat du protagonista, birtiztan dena ondo doakion pertsonaia bat. Une batean, baina, gidari mozkor batek jo, kolpe latza hartu, eta ospitalera eramango dute. Diagnostikoa: Hartutako Kalte Zerebrala.



### 'Hemen' aldizkaria

**Argitaratzailea:** Frontera.  
**Zenbakia:** 61. zenbakia.

**H**emen erlijio gogoetarako aldizkariak *Bakardadea: itzal eta argi* izenburua jarri dio bere azkeneko zenbakia. Artikulu bana idatzi dute Maddalen Epeldek, Jose Luis Alvarezek, Joxe Arregik, Josean Manzanosek, Olatz Garmendiak eta Maria del Pilar Castrok.

# Hari batekin dator Herio

## HAUR ETA GAZTE LITERATURA

### Imanol Mercero

**A**hozko tradizioak harribitxi hau iritsi zailgu, album ilustratu formarekin.

Istoria sinplea da. Arin doa boz gorako irakurketa, eta amaierak hausnarketa eragiten du, ezinbestean: ama hilzorian duela, badoa Jakes buelta bat ematera, eta Heriorekin topo egiten du. Norengana doan ulerturik, mutiko bizkorak Herio botila batean harrapatzen du, eta ama salbatzen. Haatik, hurrengo egunak ez dira uste bezalakoak. Heriorik gabe, ez dago zer janik, gosea zabaltzen da, eta egoera jasanezin bihurtzen. Ama bere semeak zer egin duen akordatu

da, eta Herio askatzeko erregutuzten dio.

Bitartean, ilustrazioak tonua ezartzeko lana hartuko du, irakurlea gaian egokiro jartzeko ahalmena duena, surrealismora hurbilduta, estetika deseroso batenekin.

Ingalaterrako tradizioak eka-



### 'Jakes eta Herio'

**Idazlea:** Tim Bowley. **Itzultzailea:** Natalie Pudalov. **Argitaletxea:** Txalaparta-OQO.

rritako ipuin honen aldaki eskalduna *Patxi Errementaria* (Elkar, 1998) dugu, nahiz eta hausnabide desberdinak hartzen dituzten.

Era berean, Juan Kruz Igerabidek *Gauetz zoo batean* narrazioan (Berrargitalpena. *Grigor eta erlea*, Alaberdania, 2018) idatzizko bertsio bat eman zuen, Herio bertsio bat eman zuen, Herio ezagutu bat zelarrik, eta iskin egiten zebilena Grigor haurra.

Atzerriko sortzaileen artean aipamen berezia merezi dute, nire ustez, Jurg Schubigerrek idatzi eta Rotraut Susanne Bernerrek ilustratutako *Als der Tod zu uns kam* albumak (Heriotza gure etxera iritsi zenean), eta Wolf Elbruchek idatzi eta ilustratutako *Ente, Tod und Tulpe* (Ahatea, heriotza eta tulpana) liburuxkak. Bi harribitxi hauetan kontua ez da ihes egitea, baizik eta Herio ezagutu eta onartzea. Bowleyk eskainitako bertsioaren antzera.

Baina bueltatu gaitzen *Jakes eta Herio* albumera. Halako lan batek ez du kasualiterik onartzen. Atzean bikaintasuna darien sortzaileak egon behar dute. Bibliografia arakatzean, euskaraz lan bana gehiago besterik ez dituztela ikusten da: *Ameliak tx-*

*kur bat nahi du* (Bowley, A. Neves, Pamiela-Kalandraka, 2008) eta *Pinto oilarraren ezteiak* (J. A. Belmontes, Pudalov, Txalaparta-OQO, 2011). Bata zein bestea arrakasta handikoak haurrekin egiten diren kontaketa saioetan.

Pudaloven lanak gaztelaniaz aletxo batzuk gehiago dira, ez asko. Denak estetika surrealista-abstractukoak bere horretan.

Tim Bowleyri dagokionez, ez da lehen aldian ipuin hau argitaratzen duena, *Semillas al viento/Seeds on the wind* (Ed Raices, 2001) ipuin bilduma elebidunean jada eskaini baitzuen, bai eta bertsio libreago eta oso interesgarri bat *Historias de ninguna parte/Tales from nowhere* (Palabras del Candil, 2008) bilduman ere: *Encuentro con la muerte/ Meeting death*.

Baten bat harrituko da argitalpen elebidunak egiteko Bowleyren joerarekin, baina honek ere badu azalpena. Tim Bowleyk bizitzako azken hiru hamarkadak penintsulan pasatu zituen, urte gehienak ipuin kontaketa elebidunak egiten, Casilda Regueirorekin lehenik; Charo Pitarekin ondoren, kasik hil zen arte, 2017ko ekainean.